SAU-N4 SEKTOREKO ORDENANTZA ARAUTZAILEAREN IDAZKETA BERRIA

1.1.- Antolaketa eta kudeaketa:

a) Vicuñako etxadien ondoan dauden lurrak dira. Lur horiek Langraizko etorbidearen parean, Pobesko norabidean, daude eta Langraiz Okako etxe sareari jarraipena eman nahi dio.

b) Beharrezkoa izango da, lehenengo, dagokion zati plana egitea eta, ondoren, konpentsazio proiektua eta hirigintza proiektua.

c) Ordezko arauak behin betiko onartzen direnetik, gehienez, 8 urte izango dira zati plana egiteko.

1.2.- Erabileren erregimena:

a) Ohiko erabilera: etxebizitzak.

b) Onartutako beste erabilera batzuk:

- Aparkalekua sotoan eta beheko solairuan.

- Zerbitzuak solairu guztietan.

- Dendak beheko solairuan.

c) Debekuak: gainerako erabilera guztiak debekatuta daude.

1.3.- Kudeatze sistema: jabe bakarreko konpentsazio sistema (Iruña Okako Udala).

1.4.- Hirigintza parametroak:

a) Orubearen gutxieneko neurria: zati planak zehaztuko du.

b) Etxebizitza kopurua, gehienez: 120 etxebizitza.

c) Eraikigarritasun gordina, gehienez: 0,70 $m^2/m^2$.

d) Eraikigarri dena orubean, gehienez: orube garbiaren %60.

e) Alineazioa: zati planak zehaztuko du.

1.5.- Eraikitze parametroak:

a) Eraikin mota: etxebizitza ugariko etxea.

b) Garaiera, gehienez: BS+3

1.6.- Itxura parametroak: materialak, banaketa eta diseinua direla eta, ez da mugarik jartzen, baldin eta ondo eraikitzen badira. Hala ere, zerbait zehaztekotan, zati planak zehaztuko du.

1.7.- Lagapenak eta hirigintza: zati planak zehaztuko du.

Espazio libreen eta inguru berdeen sistema orokorra.

Espazio libreen eta inguru berdeen sistema orokorra bat datorrenez gero Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Sailak zehaztutako babes eremuarekin, argi dago eremu horretan ezin izango dena ezer eraiki. Halaber, lur kotak eta egun diren zuhaitzak bere horretan utziko dira. Garbitze eta egokitze lanak baino ezin izango dira egin, inguru hori inguru berde bezala erabili ahal izan dadin.

NUEVA REDACCIÓN DE LA ORDENANZA REGULADORA DEL SECTOR SAU-N4

1.1.- Ordenación y Gestión:

a) Se trata de los terrenos situados a continuación de los bloques de Vicuña y que discurren a lo largo de la Avda. de Langraiz en dirección a Pobes, que tratan de dar continuidad a la trama urbana de Nanclares de la Oca.

b) Será necesario la redacción del correspondiente Plan Parcial y posteriormente Proyecto de Compensación y Proyecto de Urbanización.

c) Se fija un plazo máximo para la redacción del Plan Parcial de 8 años a contar desde la aprobación definitiva de estas NN.SS.

1.2.- Régimen de Usos:

a) Uso característico: residencial.

b) Uso compatible:

- Guardería de coches en sótano y planta baja.

- Usos terciarios en todas las plantas.

- Uso comercial en planta baja.

c) Uso prohibido: Se consideran prohibidos los restantes usos.

1.3.- Sistema de Gestión: Sistema de Compensación de propietario único (Ayuntamiento de Iruña de Oca).

1.4.- Parámetros Urbanísticos:

a) Unidad mínima de Parcelación: La fijará el Plan Parcial.

b) Número máximo de viviendas: 120 viviendas.

c) Edificabilidad bruta máxima: 0,70 $m^2/m^2$.

d) Ocupación máxima: 60% sobre parcela neta.

e) Alineación: Las definirá el Plan Parcial.

1.5.- Parámetros Edificatorios:

a) Tipología Edificatoria: Bloque residencial plurifamiliar.

b) Altura máxima: PB+3

1.6.- Parámetros estéticos: No se establecen limitaciones en este sentido en cuanto a materiales, composición y diseño, siempre que respondan a la buena práctica constructiva. En todo caso los fijará el Plan Parcial.

1.7.- Cesiones y Urbanización: Las fijará el Plan Parcial.

Sistema general de espacios libres y zonas verdes.

Dado que el Sistema General de espacios libres y zonas verdes coincide con la franja de protección determinada por el Departamento de Medio Ambiente de la D.F.A., queda claro que en dicho zona no podrá realizarse ninguna acción constructiva, debiendo mantenerse la cota del terreno y las especies arbóreas existentes. Solamente podrán realizarse trabajos de limpieza y adecuación del ámbito para que pueda ser utilizado como zona verde.

## HERRILAN ETA HIRIGINTZA SAILA

**1.251**

**124/2003 FORU AGINDUA, otsailaren 17koa, Erribera Beitiko udalerriko Barne Eraldaketarako Plan Bereziaren baitako “El Vado” Egikaritze Unitatearen espedienteari buruzkoa.**

AURREKARIAK

Lehena.- 2002ko abuztuaren 2ko osoko bilkuran, Erribera Beitiko Udalbatzak behin-behinekoz erabaki zuen Barne Eraldaketarako Plan Bereziaren baitako “El Vado” Egikaritze Unitatea onestea. Orobat, erabaki zuen espedientea 15 egun baliodunez jendaurrean jartzea; eta, horretarako, iragarkia argitaratu zuen Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean (95. zenbakia, 2002ko abuztuaren 23koa) eta “El Periódico de Álava” egunkarian (2002ko abuztuaren 30ekoa) eta Udaleko iragarki-oholean.

Bigarrena.- Jendaurrean izan zen bitartean inork ez zuen alegaziorik aurkeztu. Horrenbestez, Udalbatzak, 2002ko irailaren 24ko bilkuran, behin-behinekoz onartu zuen espedientea, eta Arabako Foru Aldundiari bidali zion, behin betiko onar zezan. 2002ko urriaren 25ean sartu zen Foru Aldundian.

Hirugarrena.- Espedientea ikusita, arauzko dokumentuak falta zirela ikusi zen; 2002ko azaroaren 12an eskatu zitzaizkion Erribera Beitiko Udalari, eta Udalak 2002ko abenduaren 18an bete zituen.

## DEPARTAMENTO DE OBRAS PÚBLICAS Y URBANISMO

**1.251**

**ORDEN FORAL 124/2003, de 17 de febrero, en relación con expediente de Plan Especial de Reforma Interior del municipio de Ribera Baja, relativo a la Unidad de Ejecución “El Vado”.**

ANTECEDENTES

Primero.- Con fecha 2 de agosto de 2002, el Pleno del Ayuntamiento de Ribera Baja, acordó aprobar inicialmente el Plan Especial de Reforma Interior de Ribera Baja, relativo a la Unidad de Ejecución “El Vado”, así como someter el expediente a información pública por el plazo de 15 días, hecho que fue practicado mediante anuncio en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 95, de 23 de agosto de 2002, en los periódicos “El Correo” y “El Periódico de Álava” de 30 de agosto de 2002, y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Segundo.- Durante el periodo de información pública no fue presentada ninguna alegación, por lo que, procedió el Ayuntamiento en sesión del día 24 de septiembre de 2002, a aprobar provisionalmente el expediente y remitirlo a la Diputación Foral de Álava para su aprobación definitiva, donde tuvo entrada el día 25 de octubre de 2002.

Tercero.- Examinado el expediente se observó la falta de documentación reglamentaria; habiendo sido solicitada al Ayuntamiento de Ribera Baja en fecha 12 de noviembre de 2002, el Ayuntamiento la cumplimentó el 18 de diciembre de 2002.

OINARRIAK

Lehena.- Plan Berezi honetako eremua hiri lurzoru gisa sailkatu eta kalifikatzen dute indarreko Ordezko Arauek.

Aipatutako tresna igorri denez, aurreko Ordezko Arauen 79. artikulua da aplikagarri; aipatutako Ordezko Arau horiek behin betiko onetsi ziren 1991ko uztailaren 3ko 328 Foru Arauaren bidez.

Aipatutako artikuluak jarduketak batera egiten uzten du, hau da, lurzati unitate beraren barruan hainbat enpresaren pabilioi atxiki eraikitzen.

Eta, hain zuzen, Plan Berezi honek aurreko horretaz jarduten du. Horrela bada, honakoetara mugatzen da funtsean: bolumenak antolatzera eta eraikinen sarbideetako barruko bideen lurzatiketa egin eta zehaztera. Horrekin esan nahi da erabakiak xehetasunezko azterlan baten bidez konpon zitezkeela. Hala ere, plan bereziaren figura aurkeratu da Ordezko Arauak ezarri direlako.

Bigarrena.- Aurkeztutako dokumentuak azterturik, ikusi dugu aplikatzekoak diren Ordezko Arauetan ezarritako xedapenak betetzen dituela.

Hori dela-eta, dagozkidan eskumenez baliaturik,

XEDATU DUT:

Lehena.- Behin-betiko onestea Erribera Beitiko udalerriko Barne Eraldaketarako Plan Bereziaren espedientea, “El Vado” Egikaritze Unitateari buruzkoa. Getrasak aurkeztu zuen espediente hori eta aipatutako udalerriko Udalak bideratu.

Bigarrena.- Ebazpen hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzea.

Hirugarrena.- Aurreko ebazpen hori behin betikoa da administrazio bidean, eta horren aurka interesdunak ondorengo errekurtsoetako edozein aurkez dezake. Interesdunak, gainera, egoki deritzon beste edozein neurri har dezake:

a) Administrazioarekiko auzi errekurtsoa, zuzenean. Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan aurkeztu behar da. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

b) Nahi izanez gero, errekurtso horren aurretik, interesdunak berraztertzeko errekurtsoa edo beste Administrazio batzuen errekerimendua aurkeztu ahal izango diote ebazpena eman zuen organoari. Hilabeteko epea izango da horretarako, ebazpena jakinarazi edo argitaratu ondorengo egunetik hasita.”

Denek jakin dezaten ematen da argitara.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko otsailaren 17a.– Herrilan eta Hirigintza Saila, ANTONIO AGUILAR MEDIAVILLA.

FUNDAMENTOS

Primero.- El ámbito del presente Plan Especial está clasificado y calificado por las Normas Subsidiarias vigentes como suelo urbano industrial.

Por remisión del citado instrumento es de aplicación el artículo 79 de las Normas Subsidiarias anteriores que fueron aprobadas definitivamente mediante la Orden foral número 328, de 3 de julio de 1991.

El citado artículo permite las actuaciones de conjunto, es decir la construcción de pabellones adosados pertenecientes a diversas empresas, dentro de la misma unidad parcelaria.

Y, precisamente, a lo anterior se reduce el presente Plan Especial, por lo que en esencia se limita a ordenar volúmenes, parcelar y definir la vialidad interior de acceso a las edificaciones. Esto quiere decir que estas determinaciones podían haberse resuelto mediante un estudio de detalle; no obstante, se ha elegido la figura de plan especial por imposición de las Normas Subsidiarias.

Segundo.- Analizada la documentación aportada se desprende que cumple las determinaciones establecidas en las Normas Subsidiarias de aplicación.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de Plan Especial de Reforma Interior de las Normas Subsidiarias Ribera Baja, relativo a la Unidad de Ejecución “El Vado”, formulado por Getrasa y tramitado por el Ayuntamiento del citado municipio.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponer cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estime procedente en defensa de sus intereses:

a) Directamente, el recurso, contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Lo que se publica para general conocimiento.

Vitoria-Gasteiz, a 17 de febrero de 2003.– El Diputado de Obras Públicas y Urbanismo, ANTONIO AGUILAR MEDIAVILLA.

## Iragarkiak

### NEKAZARITZA ETA INGURUMEN SAILA

INGURUMENEKO ZUZENDARITZA

**1.738**

**Iragarkia**

Martxoaren 6ko 110 Foru Agindua betetzeko, eta indarreko araudiari jarraituz, argitara ematen da Martiodako animaliak berreskuratzeko zentroa osorik kudeatzeko zerbitzua esleitzeko lehiaketa irekiaren deialdia.

KONTRATUAREN XEDEA: adierazitakoa.

IZAPIDEAK: ohikoa.

PROZEDURA: irekia.

ESLEITZEKO ERA: lehiaketa.

LIZITAZIO TASA: 71.600 euro, BEZa barne (urteko oinarria).

GAUTZEKO EPEA: kontratuak bi urtez iraungo du hasiera batean.

BEHIN-BEHINEKO FIANTZA: ez da eskatzen.

BEHIN BETIKO FIANTZA: kontratuaren esleipen zenbatekoaren %4.

ESKATUTAKO SAILKAPENA: M Taldea, 8 Azpitaldea, A Kategoria edo, bestela, III Taldea, 8 Azpitaldea, A Kategoria.

## Anuncios

### DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y MEDIO AMBIENTE

DIRECCIÓN DEL MEDIO AMBIENTE

**1.738**

**Anuncio**

En cumplimiento de la Orden Foral número 110 de 6 de marzo de 2003 y de conformidad con la normativa vigente, se anuncia convocatoria de Concurso Abierto para la adjudicación del servicio de gestión integral del centro de recuperación de fauna de Martioda.

OBJETO DEL CONTRATO: El que queda reseñado.

TRAMITACIÓN: Ordinaria.

PROCEDIMIENTO: Abierto.

FORMA DE ADJUDICACIÓN: Concurso.

TIPO DE LICITACIÓN: Se establece en 71.600 euros IVA incluido (base anual).

PLAZO DE EJECUCIÓN: La duración inicial del contrato será de dos años.

FIANZA PROVISIONAL: No se exige.

FIANZA DEFINITIVA: 4% del importe de adjudicación del contrato.

CLASIFICACIÓN EXIGIDA: Grupo M, Subgrupo 8, Categoría A o, alternativamente Grupo III, Subgrupo 8, Categoría A.